



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 2a

71. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Irrati lizentzien kontzesioa deuseztatzearen ondoriozko errekurso judizialen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena (1997-2013), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Irrati lizentzien kontzesioa deuseztatzearen ondoriozko errekurtsio judizialen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena (1997-2013), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, irradi lizentzien kontzesioa deuseztatzearen ondoriozko errekurtsio judizialen kostuari buruzkoa (1997-2013), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Irrati lizentzien kontzesioa deuseztatzearen ondoriozko errekurtsio judizialen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena (1997-2013), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
  - II. Aztertutako irradi lizentzien kontzesioei buruzko gertakari administratibo eta judizial nagusien deskribapen laburra (3. or.).
  - III. Helburua, norainokoa eta mugak (6. or.).
  - IV. Ondorioak (6. or.).
- Gehigarria. Iruñerriko FM lizentzien banaketari buruzko laburpen kronologikoa (1990etik 2012ra) (8. or.).

## I. SARRERA

Atxiki gabeko foru parlamentariak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran erabaki zuen Kontuen Ganberari txosten bat eskatzea *“Nafarroako funts publikoek izan duten kostu ekonomikoari buruzkoa, Net 21 eta Radio Universidad enpresei emandako irrati-difusioko kontzesioak deuseztatzearen inguruan Nafarroako Auzitegi Nagusian eta Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekursoak prestatu, jarraitu eta kudeatzearen ondorioz”*.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, aipatutako fiskalizazio-lana 2014ko jarduketa programan sartu da.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, deskribapen labur bat egin dugu txostenean aztertutako egitate garrantzitsuei buruz. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa aurkeztu ditugu, haren mugekin batera. Laugarren eta azkenekoan, gure lanetik lortu ditugun ondorioak aurkeztu ditugu.

Horrekin batera, Iruñerriko FM lizentzien kontzesioei buruzko bilduma kronologiko erako gehigarri bat ageri da; hartan, lizentzien lehengo kontzesioa, 1990ekoa, bigarrena, 1998koa –txosten honen xede dena– eta hirugarrena, 2012koa xehetasunez aipatzen dira.

Azterketa-lana 2014ko martxoan egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. AZTERTUTAKO IRRATI LIZENTZIEN KONTZESIOEI BURUZKO GERTAKARI ADMINISTRATIBO ETA JUDIZIAL NAGUSIEN DESKRIBAPEN LABURRA.

Ondoren, laburpen gisa, aztertutako gaiaren item nagusiak aurkeztuko ditugu.

- Azaroaren 28ko 5121/1997 Foru Agindua, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariarena, frekuentzia modulatuak uhin metrikoren bidezko irrati zerbitzua kudeatzeko kontzesio administratiboen kontratazio espedientea onesten duena. Horien artean aurreikusten da Iruñerriko bi irrati egotea.

- Uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Agindua, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariarena, Iruñeko bi irratiak behin-behinekoz "Universidad de Navarra"ri eta "Medios de Comunicación 21"ri (Net'21) ematen dizkiena.

Aztertutako informazioaren arabera, kontratazio mahaiak 1998ko ekainean baloratu zituen eskaintzak, eta baldintza-orrietan ezarritako zortzi irizpideetatik lau puntuatu gabe utzi zituen: programazioaren izaera, Foru Komunitatearen balio kultural, historiko eta sozialen sustapena, bideragarritasun ekonomikoa, eta kaudimen profesionala eta bideragarritasun teknikoa. Mahaiak irizpide horiek ez baloratzeko arrazoia izan zen ezin zela haiei buruzko zenbatespen kuantitatibo zehatza egin.

Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusiak (zeina mahaiburua baitzen) 1998ko uztailaren txosten bat eman zuen, non mahaiak puntuatu gabeko alderdiei zegokien puntuazioa eman baitzuen.

Bi balorazioak batuta, aipatutako "Universidad de Navarra" eta "Net'21"ren aldeko esleipen proposamena egin zen.

- Aurreko esleipen horren aurka errekurtsio arrunta aurkeztu zuen Iruñeko Komunikabideak, SA enpresak. Nafarroako Gobernuak 1998ko azaroko erabaki baten bitartez ezetsi zuen errekurtsio hori.

- Iruñeko Komunikabideak, SAK 68/1999 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuaren erabaki horren aurka.

- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren Lehenengo Sekzioak, 2005eko abenduan, 1140/2005 epaia eman zuen. Epaia hori aztertuta, honakoa azpimarratu behar dugu:

a) Mahaiaren balorazioa, baldintzen orriko oinarrien arabera alderdi jakin batzuk baizik puntuatzen ez zituena, kontzesiorako beste alderdi garrantzitsu batzuk puntuatu gabe utzita, proposamen osatu gabea da, zeinak nabarmenki utzi baitzuen kontratazio-organoa esleipena egiteko motibazio egokirik gabe.

b) Auzitegiaren arabera, bereziki aipagarria da Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusi eta mahaiburu zenaren esku-hartzea, zeren eta txosten bat eman baitzuen mahaiak puntuatu gabeko alderdi horiek baloratzeko eta puntuatzeko. Auzitegiaren arabera, jarduketa hori desegokia, kontratasankorra eta ondoriorik gabea –eraginik gabekoa baita– da.

c) Hori dela eta, Auzitegiak partzialki baiesten du aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa: Nafarroako Gobernuaren 1998ko azaroko Erabakia deuseztatzen du, hain zuzen ere lehiaketa esleitzen duen foru aginduaren aurkako errekurtsio arrunta ezesten duena, eta agintzen du espediente administratiboa atzera ekartzeko, kontratazio mahaiak behar den proposamena egin dezan osotasunez eta xehetasunez, puntuazio egokia eta zehatza emanez baldintza-orrietan ezarritako irizpide guztiei buruz.

- Prozedura atzera ekartzea agindua zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aipatutako epaian adierazitakoa betetzeko, honela jardun zen:

a) Kontratazio Mahaiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu zion ezen, konplexutasun teknikoa ikusita, aurkeztutako eskaintzak baloratzeko azterlan bat kontrata zezala, epai horretan ezarritako terminoetan.

b) Otsailaren 9ko 39/2006 Foru Aginduaren bitartez, DOXA Consulting aholkularitza-enpresari esleitu zitzaion eskaintzen balorazio partzialari buruzko azterlan bat egitea.

c) Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren otsailaren 8ko 278/2006 Foru Aginduaren bitartez, *kontratazio mahaiak proposatutako erabakia hartu zen; erabaki horretan, izan ere, DOXAk egindako azterlanean bildutako proposamena onartu zen. Hartara, FM irratietarako eskainitako bi kontzesio eman ziren*, eta berriz ere "Universidad de Navarra"ri eta "Net'21"ri esleitu zitzaizkien.

- Iruñeko Komunikabideak, SAK gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen aipatutako 278/2006 Foru Aginduaren aurka, aipatutako esleipena aurkatzeko, besteak beste ulertzen zuelako Administrazioak modu irregularrean jardun zuela esleipen-prozedura izapidetzeko garaian.

- Nafarroako Gobernuaren 2007ko otsailaren 12ko Erabakia, aurreko gora jotzeko errekurtsioa ezesten duena.

- Iruñeko Komunikabideak, SAK administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuaren ezespren-erabaki horren aurka.

- Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 803/2009 Epaia, 2009ko abendukoa. Epaia hori aztertuta, honakoa adierazi behar dugu:

a) 2005eko abenduko epaiak 2343/1998 Foru Aginduan jasotako lehiaketaren esleipena, administrazio-kontzesioei buruzkoa, deuseztatu egin zuen, eta agindu zuen espedientea atzera ekartzeko *kontratazio mahaiak dagokion proposamena egin dezan, eta aurkeztutako eskaintzak osotasunez eta zehaztasunez baloratu eta gero administrazio baldintza partikularren orrian ezarri-*

*tako irizpide guztiak behar bezala puntua ditzan, eta, behin egiaztatuta, prozedurak aurrera jarrai dezan.*

b) Kontratazio-mahaiak, horretarako ahalmenik eduki gabe, esleipen-organoari hirugarren organo bat, aholku-emailea, izendatzea planteatu zion. Ez dago kontratazio mahaiaren aldeko ahal gaitzearik, aplikatzekoa den araudiak eta 2005eko epai irmoak ezartzen zion ebazteko betebeharrak salbuesteko.

c) Esleipen-prozeduran egindako berrikuntzak, kontratazio mahaiak bere betebeharra bete ez zuen unetik aurrera gertatu zenak, aurkatutako ebazpenari deuseztasun-akatsa eragiten dio, prozedurako funtsezko arauak hautsi baitira.

d) Horrenbestez, Iruñeko Komunikabideak, SAK aurkeztutako errekurtsioa baiesten da, jarduketak deuseztatu eta eraginik gabe uzten dira eta agintzen da esleipen-prozedura atzera ekar dadila, 2005eko abenduko epaiak ezarri zuen unera. Aurkatutako ebazpena deuseztatzen da, administrazio-espedita atzera ekartzeko agintzen da, eta aipatzen da kontratazio mahaiak dagokion proposamena eginen duela, orrietan ezarritako irizpide guztiak osotasunez eta zehaztasunez puntuatuz, eta behin hori eginda, prozedurarekin jarraituko dela.

- Nafarroako Gobernuak eta "Universidad de Navarra"k 1649/2010 kasazio errekurtsioa aurkeztu zuten Auzitegi Gorenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aipatutako epaiaren aurka. Bi errekurtsioen tesia da mahaiak DOXA Consulting enpresaren txostenean oinarrituta egin zuen esleipen-proposamena zuzena izan zela, zeren eta txosten tekniko hori eskatzeko aukera berariaz onartu eta aitortu baitzen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurreko epaian.

- Auzitegi Gorenaren 6289/2013 Epaiak, 2013ko abenduaren 4koa, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2009ko abenduko Epaiaren aurkako 1649/2010 kasazio errekurtsioa ebazten duena. Erabakian aipatzen da ez direla bidezkoak Nafarroako Gobernuak eta "Universidad de Navarra"k Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2009ko abenduko epaiaren aurka aurkeztutako kasazio errekurtsioak.

Epaiak, gainera, gogora ekartzen du Auzitegi Gorenak berak kontratazio-mahaien jarduketak direla-eta ezarrita daukan doktrina:

Kontratazio mahaia, objektibotasun eta inpartzialtasun bermeak ematen dituzten pertsonen osatutako organoa da, pertsona horiek Administrazioaren kideak baitira, eta halakorik ez da gertatzen entitate pribatuetan; bada, berme horiek, gainera, indartuta datoz organo tekniko horretako kideak ezesteko interesdun orok daukan aukerarengatik, baldin eta kide horien objektibotasunari eta inpartzialtasunari buruzko zalantzak baldin baditu.

*Kontratazio mahaiak kanpoko aholkularitza batera jo dezake baloratu beharreko arloaren berezitasunak hori eskatzen duenean, baina azpimarratu beharra dago daukan gaitasun teknikoa zalantzan jar daitekeen entitate pribatu batek zuzenean egindako balorazio batek ez dituela Administrazioaren organo teknikoek berezko dituzten objektibotasuna eta inpartzialtasuna eta, horrenbestez, kalifikazio tekniko organo administratiboetara aitortzen zaien erantzun zuzenaren presuntzioa oinarritzeko funts horiek falta dituela.*

*Mahaiak kanpoko aholkularitzez baliatu denean, ezin du besterik gabe bere egin kanpoko aholkularitza-enpresak egindako balorazioa, zeren eta hori egiten balu kontratazio mahaiaren ez-betetze bat antzemanen baikenuke, eskaintzak baloratzeko eginkizun berekiari, ezin eskuorde daitekeenari, dagokionez; izan ere, kontratazio mahaiak eginkizun hori esleituta dauka honelako esleipenen buruan egon behar duten objektibotasuna eta inpartzialtasuna babestuta eta justifikatuta egon daitezela.*

Aurreko epaien multzoan, edo ez da ageri kostuen ezarpenari buruzko berariazko erabakirik, edo bestela, berariaz, bidegabetzat jotzen dira.

Zehaztu beharra dago aurreko jarduketa judizial guztietan, Nafarroako Gobernua bere aholkulari juridikoek ordezkatu dutela. Halaber, Aholkularitza Juridikoak, kasuak aztertzeko perituxosten teknikoak behar dituztenean, Foru Administrazioaren zerbitzuei beraiei eskatzen dizkie.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.

Parlamentuaren eskaria betez eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, aztertutako irratiluzentzien kontzesioak direla-eta aurkeztu diren errekurtsio judizialek Nafarroako Gobernuari eragin dioten kostuari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Gure txostenaren helburua izan da ondorio batera iritea *“irratiluzentzien kontzesioaren ondoriozko errekurtsio judizialen izapidetzeak Nafarroako Gobernuari ekarritako kostuari buruz (1997-2013)”*.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Bartzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Hartara, lana, funtsean, honakoak izan ditu ardatz:

a) Aurrekontu-kontabilitatean jasotako gastuak aztertzea eta gastu horiek Nafarroako Gobernu honako departamentuei eskatutako eta haiengandik jasotako informazioarekin alderatzea: Lehendakaritza (Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoa), Ekonomia eta Ogasuna, eta Kultura.

b) Zehaztea zein izan den aztertutako jarduketek Nafarroako Gobernuak langileria arloan izan duten kostu efektiboa, bai eta zuzeneko nahiz zeharkako gainerako kostuak ere. Horri dagokionez, aurrez aipatu bezala, aztertutako prozedura judizial guztietan Gobernu bere zerbitzu juridikoek ordezkatu dute.

Gure lanaren denbora-esparruak honakoa hartzen du: 1997ko azarotik, orduan egin baitzen aztertutako irratiluzentziak emateko deialdia, 2013ko abendura arte, orduan eman baitzuen epaia Auzitegi Gorenak.

Gure lanean eragin handia izan duen muga bat heldu da Nafarroako Gobernuak kontabilitate analitikoko sistema bat ez edukitzetik, hain zuzen ere haren bitartez ezagutu ahal izateko, besteak beste, Aholkularitza Juridikoak eta txosten honen xedearekin lotutako Nafarroako Gobernu gainerako zerbitzuek egindako lanen eta emandako txostenen kostu zuzena –bereziki langileena– eta zeharkako kostua.

Gabezia horrek eragozten digu iritzia ematea aztertutako jarduketa guztien guztizko kostuari buruz. Hori dela eta, gure ondorioak mugatzen dira soilik lanaren xedearekin berariaz identifikatu ahal izan den aurrekontu-izaerako gastura.

### IV. ONDORIOAK

Parlamentuaren eskariari jarraituz, eta kontuan izanda gure lanean eragina izan duen muga, ondoren erakusten ditugu egindako lanaren ondorioak.

1. Iruñerriko irratiluzentzien 1998ko kontzesioa dela eta, Administrazioak hartutako erabakien aurka honako hauek aurkeztu ziren: bi errekurtsio arrunt, Nafarroako Auzitegi Nagusiari aurkeztutako bi administrazioarekiko auzi-errekurtsio eta Auzitegi Gorenari aurkeztutako kasazio errekurtsio bat.

2. Bai Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiek, bai Auzitegi Gorenarenak –azken hori epai irmoa da– kontratazio mahaiaren jarduketak deuseztatzen dituzte eta agintzen dute mahai horrek lehiaketara aurkeztutako eskaintzen balorazio osoa eta xehea egin dezala, eta balorazio horren ondotik adjudikazio prozedurarekin jarraitu beharko da. Azken batean, frekuentzien kontzesioaren egoera juridikoa 15 urte ekarri da atzera, hain zuzen ere 1998ko uztailera.

3. Jarduketa judizial horietan, Nafarroako Gobernu, funtsean, bere Aholkularitza Juridikoko langileek ordezkatu dute. Nafarroako Gobernuak kontabilitate analitikoko sistemarik ez duenez,

ezin izan dugu jakin zein izan den aipatutako Aholkularitza Juridikoak eta txosten honen xedearrekin lotutako gainerako zerbitzuek egindako lanen eta emandako txostenen kostua, zuzena nahiz zeharkakoa.

4. Horri dagokionez, eta parlamentu-eskariari jarraituz, aztertutako jarduketa judizialekin berriaz lotutako aurrekontu-gastu bakarra Madrilgo prokuradore baten minutari dagokiona da, hain zuzen ere 1649/2010 kasazio errekurtsioan jarduteagatik. 394,46 euro egiten du minuta horrek. Dagokion faktura 2014ko ekitaldian egin eta kontabilizatu zen.

5. Aurreko gastuaz gainera, honako gastuak ere har litezke kontuan, guztira 50.402 euro egiten dutenak, aztertutako jarduketekin lotura izan eta onuradun gisa "Societat de Consultoria i Enginyeria Tecnologica DOXA Consulting, SL" enpresa dutenak:

a) 2006ko laguntza teknikoko kontratu bat, honako lana egitekoa: *Nafarroako Foru Komunitateko frekuentzia modulatu uhin metrikoen bidezko soinuuzko irrati-difusio zerbizua kudeatzeko kontzesio administratiboetarako eskaintzak partzialki baloratzeko azterlana*, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 1140/2005 epaiarekin lortuta dagoena; 29.580 euro egiten du.

b) Halaber, 2006an faktura bat ordaindu zen honako kontzeptua dela eta: *Iruñerako FM lehiaketara aurkeztutako enpresa lizitatuileen eskaintzen balorazioari aurkeztutako alegazioei buruz laguntza ematea eta txostena egitea*; 11.542 euro egiten du faktura horrek.

c) 2008an, 9.280 euroko gastua egin zen, honako kontzeptua dela eta: *Nafarroako Foru Komunitateko frekuentzia modulatu uhin metrikoen bidezko soinuuzko irrati-difusio zerbizua kudeatzeko kontzesio administratiboaren esleipena dela-eta kontratazio mahaiari egindako gomendio-txostenean jasotako neurketei buruz Iruñeko Komunikabideak, SAk egindako analisi kritikoa aurkatzeko txostena*.

Horrenbestez, **amaierako laburpen gisa**, Ganbera honek ezin du iritzirik eman jarduketa judizial hauek guztiek Nafarroako Gobernuari eragin dioten guztizko kostuari buruz; soilik ondoriozta dezake jarduketa hauekin berriaz identifikatutako aurrekontu-gastuak 394,46 eurokoak izan direla; gainera, haiekin lotuta, 50.402 euro egiten duten beste gastu batzuk ageri dira.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

**GEHIGARRIA. IRUÑERRIKO FM LIZENTZIEN BANAKETARI BURUZKO LABURPEN KRONOLOGIKOA (1990etik 2012ra)**

Ondoren, laburpen kronologiko bat egingen dugu Iruñerrian FM lizentziak banatzeko prozedura desberdinei buruz.

**A) Aurrekariak, araudia eta frekuentzien lehenengo esleipena, 1990ekoa.**

Garai hartan indarra zuen legeak, Telekomunikazioen Antolamenduari buruzko abenduaren 18ko 31/1987 Legeak, jotzen zuen zerbitzu horiek funtsezkoak, Estatuaren titulartasunekoak eta sektore publikoari erreserbatuak zirela. Uhin luzeko eta motzeko emisioei dagokienez, Estatuaren monopolioa zegoen. Uhin ertaina, berriz, edo Administrazioak ustia dezake edo zeharka kudea daiteke, administrazio-kontzesio baten bitartez. Horretarako eskumena autonomia erkidegoena da. Gainera, espektror irratielektrikoaren gaineko demanio-kontzesio bat behar da. Izan ere, espektror horren titulartasuna soilik Estatuarena da.

1989ko otsailaren 18an, 169/1989 Errege Dekretuaren bitartez, Frekuentzia Modulatu Uhin Metrikoen bidezko Soinuzko Irrati-difusioko Plan Tekniko Nazionala onetsi zen, eta hartan ezarri ziren Nafarroako Foru Komunitateari esleitzea dagozkion irratien ezaugarri teknikoak eta kokapena.

1990eko otsailaren seian, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen hilabeteke epean lehiaketa publiko baterako deia egin zezan, hain zuzen ere foru erkidegoan banatzeko zeuden frekuentzia modulatu uhin ertaineko zazpi frekuentzia esleitzeko.

Otsailaren 15ean, 37/1990 Foru Dekretua onetsi zen, eta haren bidez ezarri zen frekuentzia modulatu irratia esleitzeko araubidea, zazpi irratia hain zuzen, eta aurrez lehiaketa publikoa eginenez –otsailaren 28ko 6/1990 Foru Agindua–, 1990eko urriaren 25ean Nafarroako Gobernuak erabaki zuen kontzesio horiek behin-behinekoz esleitzea, Lehendakaritza eta Telekomunikazio departamentuen txostenetan oinarrituta. Lizentzia horietatik, bi Iruñean zeuden; zehazki, "Radio Blanca" eta "Compañía Navarra de Radiodifusión".

Abenduaren 17an, Iruñeko Komunikabideak, SAK<sup>1</sup>, zeinak lehiaketa horretan parte hartu baitzuen, protesta formal bat aurkeztu zuen, jakinarazpen akastun bat egin zitzaizalakoan, eta eskatu zuen jakinarazpena forma egokiaz egiteko; halaber, berraztertze errekurtso bat aurkeztu zuen, eskatuz indarrrik gabe utz zedila esleipenari buruzko erabakia, Iruñeko irratiei zegokienez, eta eskatuz horietako bat esleiz zezaiola, zeren eta horretarako eskubidea zuela uste baitzuen.

1994ko azaroaren 19an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 638/1994 administrazioarekiko auzierrekurtsoa ezetsi zuen. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka kasazio errekurtsoa aurkeztu zuen Iruñeko Komunikabideak, SAK. 2002an, Auzitegi Gorenak deklaratu zuen kasazio errekurtsoa ez zela bidezkoa, 1990eko esleipenari zegokionez.

**B) Araudiaren aldaketa eta frekuentzien kontzesiorako bigarren deialdia, 1998an.**

Irailaren bosteko 1388/1997 Errege Dekretuak frekuentzien kopurua handitzea onetsi zuen, Irrati-difusioko Plan Tekniko Nazionalaren barruan. Horrek berarekin dakar Nafarroan beste zortzi frekuentzia egotea, horietatik bi Iruñean. Deialdi berria egiteko, azaroaren 10eko 336/1997 Foru Dekretua eman zen, zeinak 37/1990 Foru Dekretukoaren antzeko prozedura ezarri baitzuen, haren ondorengoa baita, betiere esleipen-irizpide zabalagoekin eta epe batzuk gutxituz.

Azaroaren 28ko 5121/1997 Foru Aginduaren bitartez, lizentziak emateko beste deialdi bat onetsi zen.

Kontratazio mahaiak eskaintzak baloratu zituen, eta baldintza-orrietan ezarritako zortzi irizpideetatik lau puntuatu gabe utzi zituen: programazioaren izaera, Foru Komunitatearen balio kultural, historiko eta sozialen sustapena, bideragarritasun ekonomikoa, eta kaudimen profesionala eta

---

<sup>1</sup> "Euskalerrria Irratia" merkataritza-markaren jabea



bideragarritasun teknikoak. Mahaiak irizpide horiek ez baloratzeko arrazoia izan zen ezin zela "haiei buruzko zenbatespen kuantitatibo zehatza egin". Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusiak (zeina mahaiburua baitzen) txosten bat eman zuen, non mahaiak puntuatu gabeko alderdiei zegokien puntuazioa eman baitzuen.

Uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Aginduaren bitartez, bi irriti horiek behin-behinekoz "Universidad de Navarra"ri eta "Net'21"ri esleitu zitzaizkien.

Aurreko esleipenak ondorio garrantzitsuak izan zituen Nafarroako Parlamentuan. Hartara, 1998ko irailaren zortzian, talde sozialistak eskatuta, Eledunen Batzarrak Kontuen Ganberari eskatu zion txosten bat egin zezala irratien behin-behineko esleipen-proposamenari buruz. Kontuen Ganberaren txosten juridiko baten eta Parlamentuko zerbitzu juridikoen beste txosten baten ondoren – bigarrena bat zetorren lehenengoarekin –, eta bere eskumenetatik kanpo ateratzeko arriskuaren aurrean –esleipenek eduki finantzariorik ez baitzuten, eta eduki horixe baita Ganberaren jarduketara-esparrua–, 1998ko urriaren 29an, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak txosten hori egiteari buruzko erabakiak bertan behera utzi zituzten.

Irailaren zortzian bertan, Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordearen aurrean, arloko kontseilaria eta zuzendari nagusia agertu ziren, esleipen-prozeduran jarraitutako sistema eta balorazio-irizpideen oinarri izan ziren arrazoiak azaltzeko. Bai esleipen-irizpideak, bai egindako balorazioak, kuantifikatzekoak ez ziren alderdietan, eta, horrenbestez, mahaiak puntuatu ez zituenetan, diskrezionaltzat jo ziren batzorde horretan, espedientean inongo txosten teknikorik ez baitzegoen. Bilkuran, kontseilariak jakitera eman zuen zuzendari nagusiari eskatua ziolan azken irizpide horiek baloratzeko; horrek, denborarekin, Auzitegi Gorenak balorazio horiek deuseztatzeko ekarri zuen.

Behin-behineko esleipen horren aurka, Iruñeko Komunikabideak, SAK errekurtso arrunta aurkeztu zuen. Nafarroako Gobernuaren 1998ko azaroaren 16ko erabakiz ezetsi zen aipatu errekurtsoa. Errekurtso-egileak 68/1999 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusian, eta errekurtso horren babes nagusia da mahaiak ez zituela baloratu deialdian jasotako irizpide batzuk.

1998ko azaroaren 25ean, Nafarroako Parlamentuak irratientzako baimenak emateko kontratazio-espedienteari buruzko ikerketa batzordea sortu zuen.

1999ko apirilaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Herri Lan Batzordeak ebazpen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzuen irratien esleipena berraztertzeko, esleipen-hartzaile suertatu ziren lehiatzaileek hartutako konpromiso guzti-guztiak aztertuz, konpromiso horiek beteak zituzten ala ez egiaztatze aldera.

1999ko apirilaren 15ean, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Ikerketa Batzordearen irizpeneko ondorioak onetsi zituen.

2005eko abenduaren 22an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1140/2005 epaia eman zuen, aipatutako esleipenari buruz. Auzitegiak partzialki baietsi zuen aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa: Nafarroako Gobernuaren 1998ko azaroko Erabakia deuseztatu zuen, hain zuzen ere lehiaketa esleitzen duen foru aginduaren aurkako errekurtso arrunta ezesten duena, eta agindu zuen espediente administratiboa atzera ekartzeko, kontratazio mahaiak behar zen proposamena egin zezan osotasunez eta xehetasunez, puntuazio egokia eta zehatza emanda baldintza-orrietan ezarritako irizpide guztiei, eta behin hori egiaztatuta, prozedurarekin jarrai zezan.

Parlamentuko Osoko Bilkurak, epai hori eta biharamunean, ebazpen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiau baitzuen Euskalerra Irratiaren egoera administratiboa legezta zezan.

2006ko urtarrilaren 24an, foru aginduz, epaia betetzeko agindu zen. Mahaiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu zion eskaintzen balorazio partzialari buruzko azterlan bat egin zezan. Otsailaren 9ko 39/2006 Foru Aginduaren bidez, Doxa enpresari esleitu zitzaion. Mahaiak bere egin zuen kontratatutako azterlanaren proposamena, eta eskaintzak puntuatzea erabaki

zuen. Bestalde, mahaiak erabaki zuen Ondare Zerbitzuari txosten bat eskatzea esleipen-hartzaile gisa proposatutako lizitatzailleek dokumentazioa gaurkotzeko beharrari buruz. Esleipenaren formulazioa geroratu zuten txosten hori egin arte.

2006ko martxoaren bederatzian, Gobernuak lehendakariak agerraldia egin zuen, Eusko Alkartasunaren ekimenez, Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordean, irrati lizentzien esleipena deuseztatu ondorengo jarrerari eta hartu beharreko neurriei buruz informatzeko.

2006ko martxoaren 15ean, Osoko Bilkurak mozio bat eztabaidatu eta bozkatu zuen, eta azkenean ezetsi zuen. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakaria premiatzen zen euren karguetatik ken zituzan Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria eta Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusia, Iruñean bi irrati lizentzia esleitzean izan zuten jokabidearengatik.

2006ko martxoaren 29an, Ondare Zerbitzutik jasotzeko zegoen informazioa jasota, mahaiak bere esleipen-proposamena egin zuen, berriz ere "Universidad de Navarra" eta "Net'21"ren alde.

2006ko irailaren zortzian, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren 278/2006 Foru Aginduaren bitartez, 1140/2005 epaia eta epai hori betearaztea eta espediente administratiboa atzera ekartzea xedatu zuen 17/2006 Foru Agindua betez, "Universidad de Navarra" eta "Net'21"ren aldeko behin-behineko esleipena egin zen.

Aurreko foru lege horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen Iruñeko Komunikabideak, SAK, aurreko esleipena aurkatuz, zeren eta jotzen baitzuen Administrazioak modu irregularrean jardun zuela esleipen-prozeduraren izapidetzean. Nafarroako Gobernuak, 2007ko otsailaren 12ko erabaki baten bidez, aipatutako errekurtoa ezetsi zuen. Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu zuen.

Errekurto hori Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2009ko abenduaren 30eko 803/2009 epaiaz ebatzi zen. Epai horretan baieztatzen da kontratazio mahaiak, ahalmenik gabe, planteatu duela hirugarren organo aholku-emaike bat izendatzea, betiere ebazteko beharraz salbuesteko gaikuntzarik gabe. Horren deuseztasun-akatsa eragiten dio aurkatutako ebazpenari, prozeduraren funtsezko arauak urratzeagatik. Iruñeko Komunikabideak, SAKen errekurtoa baietsi zen, eraginik gabe utzi ziren egindako jarduketak, aurkatutako ebazpena deuseztatu zen eta agindu zen prozedura 2005eko epaian jada finkatutako unera atzera ekartzea. Kontratazio mahaiak proposamen egoki bat egin beharko zuen, baldintza-orrako irizpide guztiak osotasunez eta xehetasunez baloratuz.

Aurreko epai horren aurka kasazio errekurtoa aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuak eta "Universidad de Navarra"k. Bi errekurtoen tesia da mahaiak DOXA Consulting enpresaren txostenean oinarrituta egin zuen esleipen-proposamena zuzena izan zela, zeren eta txosten tekniko hori eskatzeko aukera berariaz onartu eta aitortu baitzen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurreko epaian.

Auzitegi Gorenaren 2013ko abenduaren 4ko 6289/2013 epaiak aipatutako kasazio errekurtoa ebatzi du Salaren doktrina aplikatuz, kontratazio mahaien eginkizun eta betekizunei dagokienez, ebatzi du ez direla bidezkoak Nafarroako Gobernuak eta "Universidad de Navarra"k aurkeztutako errekurtoak. Agintzen du prozedura atzera ekartzea, kontratazio mahaiaren balorazioaren unera, eta kontratazio mahaiak dagokion proposamena egitea, osotasunez eta xehetasunez baloratuz baldintza-orrako irizpide guztiak, eta gero frekuentzien esleipenarekin jarrai dezala.

2014ko otsailaren lauan, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak agerraldia egin du, Parlamentuko zegokion batzordean, informazioa emateko 2006ko behin-behineko esleipenaren deuseztapena berresten duen Auzitegi Gorenaren epaia akatatu eta aplikatzeko Gobernuak hartu beharreko ekintzei buruz. Aipatutako kontseilariak baieztatu du Nafarroako Gobernuak epaiaren betearazpena aurrera eramane zuela, epaiaren bereraren terminoetan. Prozedura guztiz bermatzailea izanen da; dilijentziaz, gardentasunez eta legezketasuna zorrotz bete jardunen da. Hartara, laburbilduz, hauxe dio:

- Azterlan juridiko konplexu bat behar da aurretik, eta asko dira kontuan hartu beharreko faktoreak, zeren eta 1998ra itzuli behar baita. Ordutik, ikus-entzunezkoei buruzko legediak, ingurune ekonomikoak eta irratigintzaren arloko ingurune teknologikoak sekulako aldaketa izan dute. Orain dela 15 urte aurkeztutako eskaintzen datuak nabarmen aldatu dira; litekeena da lehiatzaileen bideragarritasun ekonomikoa eta kaudimen profesionala ere aldatu izana. Bideragarritasun teknikoaren eskaintza, nolahi ere, zaharkituta egon da.
- Behin Auzitegi Gorenaren epaiaren behar den jakinarazpen irmoa jaso ondoren, foru agindu bat emanen da, epaia betearaztea aginduko duena, eta agindu judiziala betetzeko urrats guztiak zehaztuko dira. Agindu hori 1998an aurkeztu ziren 24 enpresei jakinaraziko zaie. Horrek zailtasun handiak eragingen ditu; esate baterako, zein enpresak jarraitzen duten lanean, haien nortasun juridikoan izandako aldaketak eta haiek, edo haien ondorengoek, eskaintako konpromisoak aurrrera eramateko konpromisoa hartzen jarraitzen duten...
- Jakinarazpenak eginda, nolahi ere, enpresa guztiek Nafarroako Auzitegi Gorenari planteatu ahalko diote epaiaren betearazpenean gorabeherarik izan den.
- Halaber, mahaikideak izendatu behar dira, zeren eta jatorrizko mahaikoek, zati handi batean, izendatuak izatearen arrazoi izan zen legezko baldintza galdu baitute. Izendapen horren aurka errekurtsoa aurkez liteke Nafarroako Auzitegi Nagusian, epaiaren betearazpenaren gorabehera gisa.

Azkenean, 2014ko maiatzean, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak maiatzaren 2ko 28/2014 Foru Agindua eman du. Haren bidez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren (Administrazioarekiko Auzien Sala) 2009ko abenduaren 30eko 803/2009 Epaia betetzeari ekin zaio (epai haren bidez, Iruñeko frekuentzia modulatuak uhin metrikoen soinuak irratidifusioko bi emisoraren -98.3 eta 105.6- kontzesioaren esleipena baliogabetu zen).

### **C) Araudiaren aldaketa eta frekuentzien banaketarako hirugarren deialdia, 2012an.**

Digitalizazioaren etenak eta Interneten presentziak eskatzen dute, besteak beste, irradi-emisioei buruzko araudia egokitzea. Horren ondorioz, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko urriaren 31ko 7/2010 Legea argitaratu zen. Haren bidez, izan ere, irradi-zerbitzuak funtsezkotzat jotzetik interes orokorrekoak izatera pasatu ziren, eta haiek emateko araubidearen ordez alde aurretiko komunikazioen eta lehiaketa bidezko lizentzien araubide bat ezartzen da.

Irrati-difusioko Plan Tekniko Nazionalak aurreikusten du Nafarroan 42 lizentzia berri egotea, gehi 1990eko esleipenean eman gabe gelditu ziren beste bi. Nafarroako Gobernuak jotzen du kopuru hori arazoizkoa dela, salbu eta Iruñean bi irradi baizik ez esleitzeari dagokionean. Hori dela eta, administrazio zentralari kopuru hori igotzeko eskatzen dio.

2011ko martxoaren 24an, Parlamentuko Osoko Bilkuran bi mozio eztabaidatu ziren: bata Nafarroako Gobernua premiatzen zuen Parlamentuaren ebazpena betetzera, ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari dagokionez; bestean, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrira Irratiaren egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak duen jarrera.

2011ko urriaren 21ean, 15/2011 Foru Legea eman zen, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautzekoa. Haren bidez, Estatuko oinarriko legedi berrira egokitzen da. Aurrerago, urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretua onetsi zen, ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei buruzkoa. Nafarroako 15/2011 Foru Legea garatzen du. Haren 2. kapituluak ezartzen du lizentzien banaketa lehiaketa publiko bidez nola egingen den.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren 24/2012 Foru Aginduaren bidez, 44 lizentzia emateko lehiaketa publikoa onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitatean, soinuaren maiztasun modulatuak uhin metrikoen bidezko soinuak irradi-hedapeneko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko. Irailaren 19ko 83/2012 Foru Aginduaren bitartez, sei hilabetez

luzatu zen lehiaketa ebazteko gehieneko epea, aztertu beharreko proposamenen kopurua eta konplexutasuna zela eta.

2013ko otsailaren 19an, Iruñeko Komunikabideak, SAK Kultura Departamentuari eskatu zion espediente administratiboa gerarazi eta esleipen-prozedura eten zezan, eta aztertu eta zuzen zezan eskatzailearen kanpoko produkzioko emisioen atalari punturik ez emateko erabakia<sup>2</sup> proposamenaren atal guztiak balora daitezzen.

2013ko otsailaren 22an, Kultura, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren 14/2013 Foru Aginduaren bidez, 44 lizentzia emateko lehiaketa publikoa ebatzi zen. Iruñeari dagokionez, 16 eskaintza baloratu dira, eta lehenengo biei eman zaie lizentzia: Radiodifusora Navarra SAU, 78,18 punturekin, eta Radio Popular, SA, 76,50 punturekin. Iruñeko Komunikabideak, SA, 72,43 punturekin, laugarren tokian geratu da.

Iruñeko Komunikabideak, SAK gora jotzeko errekurtsua aurkeztu du egindako esleipenaren aurka. Errekurtsu hori, Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekainaren 19ko erabakiaren bidez, eze-tsi egin zen. 2013ko abenduaren 23an, Iruñeko Komunikabideak, SAK administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu du, 457/2013 prozedura arruntean. Planteatutako alegazioek bide administratiboan erabilitakoak berresten dituzte; funtsean, aipatzen da mahaiak erabaki zuela ez baloratzeari hark eskainitako programazioaren zati bat, zeina oinarritzen baitzen euskal irrati publikoaren programak emititzean.

Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoak 2014ko otsailaren zazpian erantzun zion demandari. Errekurtsu-egilearen alegazioei aurre egiten die eta zuzenbidearen araberkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuaren ezespene-erabakia.

---

<sup>2</sup> Kontratazio mahaiak erabaki zuen, "kanpoko produkzioko emisioen" atalaren barruan, puntuaziorik ez ematea Euskadik Nafarroan duen ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu publikoaren programen sail bati, zeren eta eskaintzaren barruan, ordu jakin batzuetan, Euskadi Irratiarekin konexioa egitea aurreikusten baita, eta irrati hori EITB talde publikoarena da.